BARRUTIA,8
Tfno./Fax 94 625 31 00
e-mail:015020aa@hezkuntza.net
48383 ARRATZU-BIZKAIA

ELANTXOBE
ELIZATEKO UDALA
3 FEB. 2012
SARRERA / ENTRADA ZBK. 45
IRTEERA / SALIDA ZBK.

**FAX zenbakia**
número 94 627 62 15

**Data**
Fecha 2012-02-03

**Orrialde kopurua, hau barne** **4**
Número de páginas, incluida esta

**JASOTZAILEA** **ELANTXOBE**-ko alkatea edo hezkuntza zinegotzia

**IGORLEA** **Barrutia HLHI.**

**Gaia** **2012-01-26ko bileraren akta**

**OHARRA:** hitzarmena sinatzeko kopiak zuzendaritzan daude. **Alkateok**, ahalik eta arinen etorri, mesedez.

Mª Begoña Díaz de la Torre
Barrutia Ikastetxeko Zuzendaria

**Barrutiako zuzendaritza taldeak eta ikasleen herrietako alkateak**
**2012/01/26**

**a) Deialdia**

Eguna: **2.012/01/26**
Ordua: 11:00etan
Lekua: Barrutia Herri Ikastetxean

**b) Etorritakoak**

Ajangiz: Mikel Ander Zubizarreta ( Alkatea)
Arratzu: Irene Cenigaonaindia ( Zinegotzia)
Ea: Juan Luis Landazabal Alkatearen ordezkaria
Elantxobe: Koldo Olagibel( Alkatea)
Gernika: Iñaki Gorroño (zinegotzia), Aritz Ojinaga (Teknikoa)
Ibarrangelua: Peio Unanue (Zinegotzia)
Kortezubi: Txomin Bilbao( Alkatea)
Mendata : Joseba Mallea( Alkatea)
Nabarniz: Lorena Zubizarreta.(Alkatea)

**Falta direnak** : Errigoitiko eta Ereñoko ordezkariak

1) **Gaurko gaia/k**

Barrutia Ikastetxearen finantziazioa
1-Hitzarmenaren egungo egoera.
2-2012rako jarduerak: datak, ekarpenak, ordainketak, lanak...
3-2012rako obren definizioa.
4-2013ko Eusko Jaurlaritzaren laguntzak.

EKONOMIA AURREIKUSPENA

2011 urtearen amaieran egin behar zen batzarraren atzerapena aipatzen da.
Gernika-Lumoko udalak egindako **EKONOMIA AURREIKUSPENA 2012. BARRUTIA** koadroa (aktarekin batera doa) banatu eta azaltzen da.
Mantentzen lanen kontuak hurrengo urtean zehaztuko direla (año vencido) eta inbertsioak urtean argituz, 2012 urterako inbertsioak aztertzen dira baita udalerri guztiei dagozkien kantitateak ere.
2012urterako egingo diren inbertsioak onartzen dira, lanak udako oporretan egingo direla esanez.
Gimnasioa konpontzearen (edo berria egitearen) eta jolastokirako aterpearen beharrizana ere aipatzen da. Hala ere ekainean tratatuko da bi toki hauen proiektua egitea hurrengo urterako.

Aurtengo lanak burutu ahal izateko kudeatzailea den Gernikako udalari **diru ekarpena egiteko epe-muga apirilaren 6a da** eta obrak amaitzean dirua soberan egon ezkero itzuliko da.

Hitzarmenaren sinadura guztiak orri batean batuta denok edukitzea interesgarri ikusten denez, Barrutia eskolatik herrietako alkateak sinatzen pasatu beharko direla erabakitzen da. Hamaika kopia egongo dira eta bakoitzak hamaiketan sinatu beharko du.
Batzarra osatzen duten udalerri txiki guztien interesekoa delakoan, Ajangizko alkateak Gernikako zinegotziari proposatzen dio Gernikak dituen zerbitzuak erabiltzeko orduan herri txikietako biztanleriak gehiago ordaindu behar ez izatea gernikarrak baino.

2011ko maiatzean Zuazorekin izan genuen batzarrean, 2012an 60.000€ko diru-laguntza emango zela esan zen. Hori gogorarazteko zuzendariak Zuazorekin hitz egingo duela dio.

**2) Erabakiak**

- Udalerri guztiek Gernikako udalari diru-ekarpena egiteko epemuga apirilaren seia.
- Alkate guztiek hitzarmena sinatzea: Dagoeneko kopiak zuzendaritzan daude. Ahalik eta arinen etorri, mesedez.
- Zuzendariak Zuazorekin hitz egingo du diru-laguntzarik egongo den baieztatzeko eta bilera honen akta bidaliko dio.

**3) Hurrengo bilera eguna**

Hurrengo batzarraren deialdia Gernikako hezkuntza zinegotziak ekainean egingo du

Honela, besterik gabe, amaitutzat ematen du batzar hau eta nik neuk idazkariaren fedea ematen dut

| ZUZENDARIA | IDAZKARIA |
| --- | --- |
| Mº Begoña Diaz de la Torre | Agurtzane Renobales |

# EKONOMIA AURREIKUSPENA 2012. BARRUTIA LHI

| | | | Kostua | finantziazioa | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | Kostua inbertsioak | Eusko Jaurlaritzak | Udaleko Inbertsioa | | Udalek Mantenua | |
| 2012 | Mantenua | gasoila, garbiketa, lorazaintza, etab | 100.000,00 | | 0,00 | 0,00 | | 100.000,00 | |
| | Inbertsioa | saneamendua, arketak, etab | 15.000,00 | | 0,00 | 15.000,00 | | | |
| | | Sarrera ateak, komunak, leihoak etab | 57.496,33 | | 34.497,80 | 22.998,53 | | 0,00 | |
| | | Fatxada konponketa | 57.606,86 | 130.103,19 | 34.564,12 | 23.042,74 | 61.041,28 | 0,00 | 100.000,00 |

| | 2.012 | | | |
|---|---|---|---|---|
| | Biztanle kopurua (%) | Ekarpenerako konpromisoa | Benetazko kostua | Kuota Mantenua |
| Semika-Lumo | 34,440 | 44.607,54 | 21.022,62 | 34.440,00 |
| Ajangiz | 6,400 | 8.326,60 | 3.906,64 | 6.400,00 |
| Arratzu | 5,390 | 7.012,56 | 3.290,12 | 5.390,00 |
| Ea | 12,760 | 16.601,17 | 7.788,87 | 12.760,00 |
| Elantxobe | 6,240 | 8.118,44 | 3.808,98 | 6.240,00 |
| Ereño | 3,670 | 4.774,79 | 2.240,21 | 3.670,00 |
| Errigoiti | 7,530 | 9.796,77 | 4.596,41 | 7.530,00 |
| Ibarrangelu | 8,730 | 11.358,01 | 5.328,90 | 8.730,00 |
| Kortezubi | 5,960 | 7.754,15 | 3.638,06 | 5.960,00 |
| Mendata | 5,550 | 7.220,73 | 3.387,79 | 5.550,00 |
| Nabarniz | 3,330 | 4.332,44 | 2.032,67 | 3.330,00 |
| | 100,000 | 130.103,19 | 61.041,28 | 100.000,00 |